

San Juan jaiak hastear dira Andoainen

Tradizio handiko hitzorduak musika eta ikuskizun garaikideekin uztartuko dira, Andoaingo jaietan. Ekainaren 25a bitarte ospakizun ugari iragarrita daude / 5-11



**Sorginen gaia
ikuskizuna
Urnietan,
San Juan egunaren
bezperako suan.** / 4



**Udal korporazio
berriak osatu dituzte
Andoainen eta
Urnietan, agintaldi
berriari ekiteko** / 2-3



LEHEN ORDUAK ALKATETZAN

Maider Lainez sozialistak jeltzaleen babesa lortu zuen ekainaren 15eko kargu hartze ekitaldian. 2019-2023 agintaldia abiatu da. / 2-3

GOIBURU GOLF CLUB



- Jatetxea
- Udako Ludoteka
- Golf zuretzat

JAIETAN ONDO PASA



Informa zaitez: 943300845 - Andoain

Agintaldi berria martxan jarri da

Urnietako udaletxean kargu hartze ekitaldia ospakizun bilakatu zuten. Kargua hartu aurretik eta ondoren, alderdietako ordezkariak hitz egiteko txanda bana izan zuten. Amaieran, Egape dantza taldekoek korporazio berriari agurra eskaini zioten

Jon Ander Ubeda URNIETA

Hirugarrenez jarraian, EAJ-PNV-ko Mikel Pagolak alkate lanetan jarraituko du. Larunbat goizean osatu zuten Udal korporazio berria, pleno aretoa jendez lepo beteta zegoela. Adierazpen ezberdinetan, Herme Gonzalezek, Ainara de Miguelek eta Mikel Pagolak herri hobe baten aldeko konpromisoa berretsi zuten. Aginte-makila eskuetan hartu eta gero, Mikel Pagolak hitz bereziak eskaini zizkien etxekoei. Zehazki, bere amari, bi alabei eta emazteari. Gainerakoan, zinegotzi guztiei hartu duten konpromisoagatik esker ona adierazi ziren. Txanbolinako musikarien eta Egapeko dantzarien agurra-ekin amaiera eman zioten ekitaldiari.



Mikel Pagola, aginte-makila eskuan. AIURRI



Korporaziokideen argazkia

EAJ-PNV: Mikel Pagola, Jorge Segurado, Lucia Goñi, Agurtzane Mercader, Juan Luis Goikoetxea, Mikel Artola eta David Rosco. EH BILDU: Ainara de Miguel, Ainhoa

Jauregi eta Nekane Ubillos (Mikel Legarreta lasterkaria Asturiasen zen, eta ez zuen kargua hartu ahal izan). PSE-EE: Herme Gonzalez eta Consuelo Frutos.

Hiru bozeramaileen adierazpenak



Mikel Pagolak birritan hartu zuen hitza, kargu hartze ekitaldian. AIURRI

EAJ-PNV Bozketari ekin aurretik, Mikel Pagola alkategaiak Urnietak dituen erronkak zehaztu zituen. Besteak beste, etxebizitza, kirola, euskara eta hirugarren adinari begirako egitasmoak aurreratu zituen.



Ainara de Miguel estrainekoz murgildu da politikagintzan. AIURRI

EH Bildu Ainara De Miguelek garapenaren aldeko mintzaldia prestatu zuen, eta berdintasunaren, hizkuntzaren eta herria bizitzaren aldeko mezua zuzenak txertatu zituen. Legarreta ez zegoen Urnietan, eta ezin izan zuen zinegotzi kargua hartu.



Lau urte udalgintzatik kanpo ibili eta gero, berriro itzuli da. AIURRI

PSE-EE Herme Gonzalezek bere hautagaitza erretiratu zuen, EAJ-PNV eta PSE-EE alderdien arteko EAE mailako hitzarmenari men eginez. Zorrotz hitz egin zuen, ohi duen bezala, baina eskua zabalik utziz.

Maider Lainezi aginte-makila

Ostiral eguerdian, Andoaingo PSE-EE eta EAJ-PNV alderdiek gobernua osatzeko akordioa lortu zutela iragarri zuten. Eta larunbateko plenoan ez zen ezustekorik izan, eta Maider Lainezek beharrezko zituen bederatz bi botoak eskuratu zituen

Jon Ander Ubeda ANDOAIN
Ohar bateratu baten bidez, PSE-EEk eta EAJ-PNV alderdiek elkarlanerako akordioaren berri eman zuten: "2019-2023 epealdirako gobernagarritasuna finka-

tzeko. Akordioak udalbatzako gehiengo osoa bermatzen du, Maider Lainezek alkatetza lortuko luke, eta bestalde, Mari Jose Izagirrek lehen alkateordetza eskuratuko luke. Alderdi

biak bat etorri dira gobernu ekintza amankomuna adostera-koan". Hogeita lau ordu eskasera iritsi zen Udal korporazio berria osatzeko batzarra, normaltasun giroan igaro zena.



Maider Lainez, aginte-makila eskuan. AIURRI

Lau bozeramaileen adierazpenak



Maider Lainez alkate izendatu ostean. Alboan, Garazi Usandizaga. AIURRI

PSE-EE "Hain berezia den egun honetan, zuen aurrean ondorengo konpromisoa hartzen dut: Andoaingo herritarren alde buru belarri lan egingo dudala, ilusioz, adorez eta ahalegin osoz".



Marijose Izagirre eta Iñaki Egibar boto zenbaketan. AIURRI

EAJ-PNV "Gobernagarritasuna bermatuko duen akordioa eta parte hartzailea izango dena, eta nagusiki honako zutabeak izango dituen: akordioak, hitza, bizikidetzeta eta errespetua guztien artean".



Andoni Alvarez eta Jon Zulueta botoa ematen. AIURRI

EH Bildu "Gaurtik aurrera orain arteko jarrera eraikitzailearekin jarraituko dugu, badakigulako gure proiektua dela herritarren gehiengoak nahi duena".



Teresa Santana Podemoseko ordezkaria. Alboan, Txitxu Ruiz jeltzalea. AIURRI

Elkarrekin Podemos "Berdintasunean, justizian, feminismoan eta ekologismoan sinetsiko duen Andoaingo baten alde arituko naiz, langabeziaren eta matxismoaren aurka lan egingo duena".

Babesa Alvarezi eta EH Bilduri



Agerraldia Goikoplazan. AIURRI

Antzematen bazuten ere, jeltzaleen eta sozialisten arteko akordioaren iragarpena kolpe modukoa izan zen EH Bilduko ordezkariarentzat eta jarraitzaileentzat. Ostiral arratsaldean agerraldia egin zuten Goikoplazan, eta larunbatera begira lasaitasuna eskatu zuten. Korporazio berriaren osaketa normaltasun osoz joan zen, eta udaletxe barruko nahiz kanpoko agerraldietan EH Bildukoek txalo zaparrada jaso zuten.

San Juan sua eta akelarrea, igandean

Musika, dantza, antzerkia eta suaren inguruko festa Plazido Muxika plazan, gaueko 22:00tan hasita. Asteburu osoan zehar jarduera gehiago izango da

Jon Ander Ubeda URNIETA

Uda hasierako gau majikoa iristear da. Akelarreak dimentsio berria eman dio ospakizunari, azken urteetan ikusmin handia bereganatzeraino. Antzerkia, dantza eta musika emanaldia iristear da. Gogotsu daude Urnietako Akelarreko kideak.

Asteburua, kulturaz blai

Joan zen asteburuan Egape DT-koek ikuskizun bikoitza eskaini eta gero, antzerki tailerrekoek ikasturte amaierako antzezlan eskainiko dute. Ostiralean Saroben, 19:00tan hasita.

Larunbatean, berriz, perkusio ikastaroa Saroben Buruntzantzan taldearen eskutik.



San Juan suaren inguruko ospakizuna, iaz. AIURRI

Gugan bego Alazne Manero

Aurrera Gure Ametsa dantza taldeko eragileetakoa asteartean zendu zen, gaixotasun larria igaro eta gero. Alazne Manero Urnietako gizarte eta kultur eragileen sarean urte luzez lanean aritutakoa zen. Iaz, Aiurri artikulu ederra argitaratu zuen. Besteak beste, zera adierazteko: "Zain ditzagun gure kultura eta historia, zeinetan, dudarik gabe auzolana giltzarri izan den".



UDALA

ZORION AGURRAK




ANDOAIN
Nahia Barandiaran
Ekainaren 23an, 5 urte! Segi alai txapelduna. Muxuak. Aitona Peio eta amonia Espe.



ANDOAIN
Ion eta Maddi
Irrifarretxu eta maiteminduta jarrai dezazuen hasiko dezuten bide berrian. Zorionak lagunak partetik bikote!



ANDOAIN
Elisabet eta Mikel
Ekainaren 28an urteak beteko ditu Elisabet Gallok. Mila muxu! Uztailaren 6an bizitza berri bat hasten zara zure bikote Mikel Camachorekin, hasten duzuen bizitza bikain joan dakizuela.



Amantegi T3T lasterketan. AIURRI



Lizeaga Irunen. AIURRI

Urnietako kirolarien asteburu borobila

Amantegi T3T mendi lasterketan zortzigarren izan zen, eta Unai Lizeaga Juanma Garate proban nagusitu zen

Andoni Urbistondo URNIETA

Urnietako kirolariak maila bikaina erakusten ari dira, proba ezberdinetan. Joan zen igandean indarra hartzen ari den mendi lasterketa antolatu zuten Tolo-san, eta Igor Amantegi zortzigarren sailkatu zen. Beste zazpi urnietarrek lortu zuten proba bukatzea. Maratoi erdian, aldiz, Eñaut Aiertzak eta Jonathan Lopezek lortu zuten helmugara iristea.

T3T:

8. Igor Amantegi	4:31:38
56. Borja Granado	5:22:48
71. Iñaki NARBART	5:33:39
73. Asier Iparragirre	5:35:05
76. Egoitz Moreno	5:36:55
141. Igor Aldasoro	6:15:42
247. Joseba Cisneros	7:43:09

T2T

142. Eñaut Aiertza	3:18:33
163. Jonathan Lopez	3:25:43

Travesera ultra trail

Proba bukatze hutsa arrakasta handia izan zen Mikel Legarreta eta Ibon Zabalentzat (Hernaniko semea, Zabala). Asturiasen, 74 kilometro eta 6.500 metroko desnibel positiboa gainditu zuten. Zabalak esan moduan, "lehen 50 kilometroak nahiko ondo, eta geratzen zirenak halamoduz".

Juanma Garate proba

Irunen, Juanma Garate zikloturista proban, Unai Lizeaga helmugaratu zen aurrena, Lizeagak berak postu horri garrantzia kendu nahi izan badio ere.

Nahikari Garcia

Espainiako Selekzioa munduko txapelketako final zortzirenak jokatzeko sailkatu da, Txinaren aurka berdindu eta gero. Nahikari Garcia hamaikakoan zela iratu zen, hirugarren partidand.



Olagain taldeari gorazarre

Olagain txistularien elkartearen eskutik dator aurtengo txupinazoaren jaurtiketa, taldea sortu zela berrogei urte betetzen direnean



Olagain Txistulari Elkartea, eguraldia ona izan ala txarra izan, beti jarri izan da herriaren zerbitzura. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Olagain txistularien elkartea 1979an osatu zenetik, txistuaren hotzak ez du etenik izan Andoain. Urtean zehar amaigabea da txistularien elkarteak eskaintzen dituen emanaldien zerrenda. Elkartea beti agertu izan da prest txistuaren hotsa zabaltzeko han hemen, era guztietako jai eta ospakizunetan. Batzuetan, elkartea bera da antolatzailea (kontzertuak, kalejirak...), eta bes-

teetan herriko kultur eta gizarte elkarteekin elkarlanean aritzen da (Axeri Dantza, Puska biltzea, Alberto Agirre abesbatza, Etzeberrieta, Sorabilla, Kaletxiki eta Santa Krutz auzoetako jaiak...).

San Juan jaietako erreparatzea besterik ez dago txistulariek jaietan hartzen duten garrantziaz ohartzeko. Aski nabaria da elkartearen presentzia egitarauan; azken egunean ez gainerakoetan, badauka zer eginik. Ostiralean

bertan, eta txupinazoaren aurretik Olagain elkarteak kalejiran parte hartuko du Gora Kaletxiki txarangarekin, Buruhandi eta Erraldioen konpartzarekin, eta Urki dantza taldearekin batera. Txupinazoaren tradizioarekin kunplutuko du ondoren, udaletxeko balkoira igota. Biharamunean, kontzertua eskainiko du Goikoplazan, 20:00etatik aurrera. Larunbatean, San Juan Alkatearen eta udalbatzaren Soka-dantzan

jo behar dute, Goikoplazan; eta segidan, kalejiran abiatuko da San Juan zortzikoa joz, eta Etzeberrietatik Goikoplaza bitarteko ibilbidea eginez. Azkenik, Axeri Dantzari musika jarriko dio, eguerdiko 12:00etatik aurrera.

1979an sortutako taldea

Mendeetan atzerago joanez gero, agiri zaharrek adierazten digute txistuak eta txistulariek beti eduki dutela bere tokia Andoaingo kaleetan. XX. mendera etorrita, gora beheratsua agertzen zaigu txistularien presentzia. Jose Luis Etzeberria txistulariak Aiurri aldizkariari 2008ko San Juan jaien bezperan kontatu izan zionez, frankismoan, urte askotan, Andoaingo herriak ez zuen txistulari talderik eduki, modu egonkorrean jotzeko lain. "Aitona, Angel Urrutia, txistularia genuen. Inaxio eta Jorge Aizpuruarekin Andoain urtetan jo izan zuen. Etxean beste inork ez zuen jotzen, eta nire artean "nik jo behar diat" esan eta hasi nintzen, etxeko tradizioa ez hausteko. Gero gure aitona hil zenean, aizpuruatarrak ere zahartu eta utzi egin zuten erabat txistua. Urte mordoska batean ez zen txisturik ez ezer izan herrian..."

Euskal kulturarentzat frankismoa garai nahiko iluna izan arren, Andoain baziren, aldi-aldian, txistuaren hotsa berpizten zuten herritarrak. Zenbait aipatzekotan, Laborde lantegian txistua jotzen ikasi zuten ikasi Emilio eta Ramon Truchuelo anaiak, Pio eta Joxe Mari Huizi, Joxe Goikoetxea eta Pablo Etzeberria hartu behar ditugu gogoan, edota, Lizar Makil dantza taldearekin batera aritu ziren Jexux Mari Otamendi, Xabier Esnal, Iñaki Arin eta Jose Antonio Zalakin.

1979 urte mugarria gertatu zen txistuarentzat Andoain, orduan sortu baitzen txistularien banda egonkorra, Jose Luis Etzeberriaren ahaleginari esker batik bat. Etzeberriak berak eman zuen aditzera banda osatzeko asmoz egin ziren mugimenduen berri, goian aipatu elkarrizketan: "Labordetik ater ginen garaian izan zen, 1979ko maiatzean. Baxoeritako lagunekin ater zen dena, badakizu. Nola ez zegoen txistularirik herrian, Goikoetxeak txistua jotzeko eta jotzeko eskatzen zidan. Bitartean, aldamenetik Fidel Arrietak esaten zigun: "zuek bai kontua eta zikina, baina ez duzue ezer egingo!". Langabezian geunden eta, "orain-txe dek okasioa!", esan eta ekin genion taldea osatzeari. Pio eta Jose Mari Huizi anaiak, Felix Martinez de Lezea, Ramon Mendiluze, Jexux Mari Otamendi, Xabier Esnal..., jendea biltzen joan ginen pixkanaka".

Bandara gazte jendea erakarri zuten, segidan. Batik bat, Aita Larramendi ikastolan Huizi, Otamendi eta hiruek ikasle izan zituztenak: Xabin eta Jon Mikel Mujika anaiak, Jon Lizarribar, Xabier Jauregi, Xabier Ansa, Iñaki Egibar...

1979an sortu zen Andoaingo txistularien banda Gabonetan ater zen lehenbiziko aldiz kalera. Geroztik konta ezin ahala emanaldi eskaini ditu, hiru zuzendarien esanetara jarrita: Jose Luis Etzeberria (1979-1988), Javier Hernandez (1988-2011), eta Joxema Setien (2011-2019). Setienen eskutik taldeak norabide berria hartu duela esan daiteke; errepertorioa musika estilo ezberdinetara zabalduz eta herriko musikari eta kulturagileekin elkarlanean jardunez.



Ardo dastaketa Goikoplazan

Aide Jauregik larunbatean ere ardo dastaketa eskainiko du, San Juan jaien barruan: "Aurten, ekitaldiaren planteamendua aldatu dugu; hiru ardo egongo dira aukeran"

Mikel Arberas ANDOAIN

Nondik datorkizu ardoarekiko zaletasuna eta jakinduria?

Beti oso presente eduki dudana arloa da. Gaztea nintzenean nire gurasoek ardo biltegi bat zuten, beraz ardoari buruzko gauzak entzuten nituen. Ez hori bakarrik, beti gustatu izan zait zapore berriak dastatzea, batez ere, jakin-min handiko pertsona naitzelako. Hala ere, nik uste dut familia-loturak garrantzi handia eduki duela. Gainera, mundu hau oso interesgarria iruditzen zait ikasteko eta ezagutzak neurreganatzeke.

Ardoaren munduan aritzeko ikasketak egin dituzu?

Duela hiruzpalau urte blokeo batean nengoen; afizio handia nuen, baina nire kabuz informatzen nintzen. Liburuen eta artikuluen bitartez egiten nuen ardo munduaren jarraipena. Orduan, nire bikoteak kurtso ofiziala egitera animatu ninduen, nahiz eta ardoari buruz gehiago jakin ez, badakizula akreditatzen zaituen horietakoa.

Hortaz, Donostiako Udalak antolatzen zuen ikastarora joan nintzen. Bertan, Juan Mari Or-



Aide Jauregi Burgosko landetxe bateko ardo dastaketan. AIURRI

mazabal irakasleari ardo munduan dauden aukeren gainean galdetu nion. Inguruan gauza handirik ez zegoenez, WSET erakundeari buruz hitz egin zidan. WSET erakundeak akademiaren bidez kurtsoak antolatzen

ditu munduan zehar, eta erakundea mailaka antolatzen da. Hau da, lehen maila oinarritzakoa da; bigarren maila, nik dudana, sakontasun gehiago eskaintzen du; eta hirugarren maila, esparru profesionalean aritzen dire-

nek egiten dute. Hirugarren mailatik aurrera, jakintza maila izugarria eskatzen da.

Nik nire aldetik asko ikasten dut, baina hirugarren maila lortzen dudanean argi geratuko da ardoari buruz badakidala. Gauzak horrela, bizpahiru urtetan eskuratzen saiatuko naiz. **Ekimen ugari egiten dituzue...**

Gure hasierako planteamendua honako hau zen: Doctor Huizin dugun lokalean zuzeneko zerbitzua jasotzea, etxeko zerbitzua eskaintzea, eta elkarteetan, festetak eta zenbait erakundetan ardo dastaketak egiteko aukera ahalbidetzea. Denborarekin, ikastaroak ere eman nahiko genituzke. Agian ez arlo profesionalean, baina ibilbidea eduki dezakeen zerbait dela pentsatzen dut, interesa pizten duen gai bat delako.

San Juan festari begira, ardo dastaketa nolakoa izango da eta zer eskainiko duzue?

Pasa den urtean dastaketa itxia antolatu genuen, hau da, 5 euro ordainduta ardo zuri, gorri eta beltza dastatzeko aukera ematen genuen. Aurten, ekitaldiaren planteamendua aldatu dugu, eta hiru ardo egongo dira aukeran: Galiziako ardo txuria, Ribera del Duero ardo beltza eta, azkenik, Cava. Azkeneko hori nire apustu pertsonala izan da, bereizgarria den zerbait sartzeko.

Otordu bakoitzeko ardo ideala zein den esango zenuke?

"AZKENEKO HAU APUSTU PERTSONALA IZAN DA, BEREIZGARRIA DEN ZERBAIT SARTZEKO"

Jendeak ohiko nahasketetara jotzen du, ia gehienetan. Ardoaren arabera, janari mota batekin edo bestearekin jatea interesgarria da. Hau da, urteko ardo txuria arina bada, oso ondo doakio janari arinekin, esaterako entsaladarekin nahastea; ardo beltzari, berriz, ondo doakio urdaiazpikoa edo txorizoa.

Guztiari oreka bilatu behar zaio, baita ardoaren munduan ere. Niri bereziki izugarritzko nahasketa iruditzen zait ardo zuriarena eta gaztarena. Adibidez, Idiazabal gazta ardo txuriarekin nahastean oso zapore bereziak ateratzen dira. Jendea ikertzerako eta deskubritzerako bulztatu behar da.

Nola erakarriko zenuke ardoa gustuko ez duen jendea?

Bertaratzen zaidana harritzen saiatzen naiz. Jendeak ardoa gustuko ez duela esaten duenean, gehiengoari ardo beltza etortzen zaio burura, oso sendoak direlako. Ardo gozoen mundua harritgarria da, nahasketa oso bereziak egin daitezkeelako.

Jendea harritu egin behar da eta pausoz pauso desmuntatu pentsatzen duena, hor dago gako. Ardo beltza gustuko ez duenez, beste ardo mota batekin txunditu beharko zaio. Ezinbestekoa da ere, ardo ona edatea, askotan kaskarra dena edaten baitugu eta, horrek, ardoarekiko ikuspegia aldatzen baitu.

"JENDEA HARRITU EGIN BEHAR DA ETA PAUSOZ PAUSO DESMUNTATU PENTSATZEN DUENA"

2019/20 ikasturterako izen ematea zabalik

ACADEMIA IDIOMAS G.F ANDOAIN
Tel.: 943 591 508

Cambridge English Exam Preparation Centre

Ondo pasa festetan!

www.academiagfandoain.com

- Gure ardatza Cambridge azterketak dira.
- Maila guztiak: STARTERS, MOVERS, FLYERS, KET, PET, FIRST, CAE...
- 2018ko uztaileko azterketatan %88 gaitzuta CAEn eta %88a First-en.
- STARTERS, MOVERS, FLYERS, KET, PET azterketatan %100 gaitzute tasa.
- Goizeko 08:00etatik gaueko 22:00ak arte.
- Ingelesa, Alemana, Frantsesa
- 4 urtetik aurrera.
- Speaking klaseak.
- Talde txikiak.

Galardi 10, 1A etorri edo deitu

ELIZONDO

FERRETERIA TABERNA

SAN JUAN JA! ZORIONTSUAK!

La Salle etorbidea, 1- Andoain

Ferreteria: 943590302 Taberna: 943592802

Klaap dantza eskola

Cristina eta Leire Andreu ahizpak Klaap dantza eskolako arduradunak dira. Azken hiru urteetan dozenaka herrikide dantza garaikidean murgiltzea lortu dute



Cristina eta Leire Andreu ahizpak hiru urte daramatzate Klaap dantza eskolan irakasten. AIURRI

Mikel Arberas ANDOAIN

Hiru konpainia ezberdin dantzan, azalduko al zenuke emanaldia?

La Salle Berrozpeko talde bat aterako da, zumba dantza taldeak *Flash Mob* modukoa egingo du, eta Klaap dantza eskolakook 5-6 talderekin irtengo gara.

Ikasturte amaierako dantza emanaldia dela esango zenukete?

Ez da ikasturte amaierako dantza, guk dagoeneko egin dugu

emanaldi hori Basteron. Ikasturte ikasturte talde ezberdinak eta adin desberdinetakoak dira San Juan jaierarako aukeratzeko ditugunak. Esan bezala, ez da ikasturte amaierako emankizuna izango, festetan parte hartzeko beste zerbait da.

Udan oporrak izango al dituzue?

Ikasturte berriarekin irailean hasiko gara, baina uztailean udalekuak egiten ditugu. Goizez

hiru astez aritzen gara, dantza, musika eta jolasak uztartuz. Andoaindik barrena irteerak ere egiten ditugu.

Modan dagoen joera dela iruditzen zaizue?

Bai. Egia da gorabeherak daukela, baina umeen oso gogokoa da. Egia da orain onarpen zabalagoa duela. Agian, lehen dantza egitea balletarekin bakarrik erlazionatzen zen.

Gaur egun berriz, dantza modernoarekin lotutako telebista programa gehiago ikusten dira. Ez dakigu modagatik den ala ez, baina jende gehiago animatzen da dantza egitera.

Zer nolako harrera eduki du Klaap dantza taldeak, Andoainen?

Oso-oso pozik gaude, hirugarren ikasturtea bukatzen ari gara, eta egia esan, pixkanaka hasi ginen, baina lehen momentutik adin guztietako jendea eduki dugu. Geroz eta talde gehiago sortzen ari dira. Aurreko urte-talde oso politak mantendu dira.

Urtetik urtera jende gehiago animatzen al da dantzatzerara?

Batez ere, lehenengo urtetik bigarrenera salto handia egon zen. Bigarrenetik hirugarrenera berriz, mantendu egin da kopurua.

Jende kopuru handia apuntatuta badago, taldeetan jartzen ditugu, eta daukagun espazioaren arabera jokatzeko dugu. Taldeak ere asko dira, arratsalde guztiak beteta ditugu. Beraz, taldeen eta espazioaren arabera antolatzen gara.

"EZ DAKIGU MODAGATIK DEN EDO EZ, BAINA JENDE GEHIAGO ANIMATZEN ARI DA DANTZA EGITERA"

Haurren akademia da, baina helduen artean interesa piztu da?

Bai, gu aurten oso pozik gaude. Urrian gurasoen talde bat sortu zen eta justu igandeko emanaldian dantzatzerara animatu ziren. Beraiek oso pozik daude, eta gu gehiago; Talde oso polita da.

Īnauterietako emanaldia oso arrakastatsua izan zen...

Lehenengo ikasturtean probak egin genituen inauteriei begira, eta arrakasta izan genuen, bigarren urtean are gehiago. Azkenean askok ematen dute izena egun horretan, gehienak urtean zehar gurekin egoten direnak dira. Oso pozgarria da, entseguak egiten ditugu, baina lan handia da; karoza laguntzarekin bada ere guk geuk muntatzen dugu, zertaz moztarrotu behar garen pentsatu behar dugu, eta dantzak sortu egin behar ditugu. Entseguak berriz, Ondarreta ikastetxean egiten ditugu.

Zer behar da dantza egiten hasteko?

Gogoia. Lotsa kendu eta, batez ere, helduagoak direnek ispilu aurrean jarri eta euren kabuz entseatu behar dute.

"HELDUAGOAK DIRENEK ISPILU AURREAN JARRI ETA EUREN KABUZ ENTSEATU BEHAR DUTE"



SANJUANAK ANDOAINEN '19

EKAINAK 21

OSTIRALA

17:30 Ping pong txapelketa
Agustin Leitza Plazan.

18:30 Gora Kaletxiki Txaranga,
Buruhandiak eta Erraldoiak,
Batukada feminista eta Urki
dantza taldea Olagain
Txistulari Elkartearekin batera
Goikoplazara iritsiko dira.

19:00 Pregoia eta jaien hasierako
txupinazoa, Olagain txistulari
Elkartearekin, Udaletxeko
balkoitik. Ondoren, Udal
musika eskolako bandak
Luis Fracaren Andoain pieza
joko du. Jarraian, kontzertua
Goikoplazan.

20:00 Pilota partidak Arraten:
1. Iturzaeta finala.
2. Profesionalen jaialdia.

22:00-01:30 Anacaona Kubako
emakumezkoen orkestra
Goikoplazan.

23:00-03:00 Liher eta Kaotiko
Nafarroa Plazan.

EKAINAK 22

LARUNBATA

09:00 -15:00 Usakume tiroketa
Pagamendin.

10:30 Pilota finalak Arrate
pilotalekuan. Haur mailako
eskuzko finalak.

11:00-13:00 Xake simultaneoko
saioak eta txapelketa
Goikoplazan. Izen-ematea:
10:45ean. Euriarekin San
Martin elizaren arkupeetan.

11:00-11:30 Patata tortilla
lehiaketa.

11:30 Andoaingo trikitilari eta
panderojoleen kalejira.

11:30 Kimikarin zientziarekin
lotutako jolas eta
esperimentuak Goikoplazan.
Euriarekin Kontsejupean.

12:15 Patata tortilla lehiaketaren
sari banaketa Goikoplazan.

12:30 Ardo dastaketa Goikoplazan:
Izkiriota ardoaren mundua.
Euriarekin San Martin
elizaren arkupeetan.

12:30 Kantu kalejira Maizorri
Txalaparta Eskolako
txalapartariak lagundurik
ibiliko dira kalez kale Goiko
plazatik hasita.

14:00 Bazkaria Goikoplazan:
Txuleta jana.

17:00 Kalejira herrian zehar,
musikaz lagunduta.
Euriarekin La Salle-Berrozpe
ikastetxeko estalpean.

16:00 Pilota partidak Arraten:
Palako eta zestako gazteen
finalak. Zestako nagusien
finalak.

17:30 Bizikleta festa Goikoplazan,
2 urtetik 12 urte
bitartekoentzat. Izen
ematea: 17:00. Euriarekin
Ondarretako jolastokian.

18:00 Aukerak zirku ikuskizuna,
Bastero plazan.

18:30 Trianaren dantza emanaldia
Goikoplazan.

19:00 Andoaindarra elkarteko
danborradaren irteera.

20:00 Olagain Txistulari
Elkartearen kontzertua.

22:30 Zezen-suzkoa Goikoplazan.

22:45 Joseba & Bakartxo dantza
erakustaldia Goikoplazan.
Ondoren, La Jodedera.

23:00-03:30 The WC Grooves eta
Sutagar Nafarroa plazan.

EKAINAK 23

IGANDEA

10:00 Bikoteen kross mistoa.
Irteera eta helmuga
Goikoplazan. 5
kilometrotako ibilbidea.

12:00 Soinuak eskolako ikasleen
kontzertua Goikoplazan.
Euriarekin La Salle-Berrozpe
ikastetxeko jolastokian.

13:00 Udal Musika eskolako Fino's
Band Goikoplazan.
Euriarekin La Salle-Berrozpe
ikastetxeko jolastokian.

16:00 Gipuzkoako Txirrindularitza
Itzulia. Irteera Goikoplazatik.

17:30 Kantu Kolore haur
ikuskizuna Nafarroa plazan.
Euriarekin Ondarretan.

18:15 Txirrindularitza itzulia.
Helmuga Plazaola kalean.



Keinu

- Festetako zapiak, blusak...
- Dantzarako arropa
- Era guztietako bordatuak (txapelak, mantalak...)

Kale Nagusia, 12. ANDOAIN
637 283 224
keinundoain@gmail.com
www.txapelasybordados.com
www.txapelabordatuak.eus

IX. ITURZAETA MEMORIALA
KONTSEJUEKO IX. PILOTA TXAPELKETA
SANJUANETAKO KLY. TXAPELKETA
NAGUSIAK TXAPELDUNA
Laster sailmenta online
Sanjuan eta Sanpedro zoriontsuak!



Olloki

- Kafetegia
- Ogitartekoak
- Razioak
- Plater konbinatuak
- Pizzak

Irailetik ekainera,
ostiral gauetan
mus txapelketa
egiten dugu

Berezitasuna:
Torreznoak

Gora San Juanak

Tel.: 943 300 603 Goikoplaza, 6-7 - Andoain



LI Arropa eta osagarriak

Gora San Juanak!
Gora San Pedroak!

Kale Nagusia 6
Andoain
Tel. 943591224

19:15 Alberto Agirre eta Udai musika eskolako abesbatzen kontzertua San Martin elizan.

20:00 On Pedro Aizpuruaren Salbe Gorena San Martin elizan, Alberto Agirre eta Udai Musika eskolako helduen abesbatzarekin.

20:15 Agintarien Soka-dantza Goikoplazan.

21:30 Olagain elkartearen kalejira, San Juan zortzikoa joz. Etxeberrietatik Goikoplazara.

22:30 Suziriak, txalaparta eta kanpai-errepika. Suaren inguruko ospakizuna: Alberto Agirre eta musika eskolako abesbatzak, Banda, Txistulariak, Soinuak eta Urki.

22:45 Agustin Leitza elkartearen Danborrada.

03:30-01:15 Korrontzi Goikoplazan.

23:00-03:00 La Basu eta Nogen Nafarroa Plazan.

EKAINAK 24

ASTELEHENA

10:30-14:30 Artisautza eta janari azoka. Munduko zaporeak: Andoain bizi diren herrialde desberdinetako biztanleek eskainitako janari eta tailerrak. Euriarekin Ondarretan.

11:00 Meza Nagusia, Alberto Agirre abesbatzak kantatua.

12:00 Axeri-dantza Goikoplazan.

13:15 Kontsejupeko pilota partidak.

17:00-20:30 Artisautza eta janari azoka. Euriarekin Ondarretan.

18:00 Herri kirolen erakustaldia Goikoplazan. Larretxea-Azurmendi / Aratz eta Ugaitz Mugerza. Maika Aristegi / Nerea Sorondo. Mikel Lopategi harrijasotzailea.

18:15 DJ Bull kalejira, Bastero plazatik Goikoplazara.

18:30 Jule kale ikuskizuna Nafarroa Plazan. Euriarekin Makaldegian.

19:30 Egaña, Alberdi, Sarriegi, Laburu, Elortza eta Enbeita Goikoplazan. Gai-jartzaile: Unai Ormaetxea.

22:30 Zezensuzkoa Goikoplazan.

EKAINAK 25

ASTEARTEA

11:00 Toka lehiaketa Goikoplazan. Hiru kategoria: Emakumeak, Gizonak, haurrak (12 urte arte). Izen-ematea: 10:30.

11:30-13:30 Haur parkea Goikoplazan. Euriarekin Ondarretan.

13:30 Agintarien harrera aiton-amonei, udaletxe aurrean. Ondoren, bazkaria Basteroko ekitaldi aretoan.

Gautxoria BUS zerbitzua San Juan jaietan



ostirala	larunbata	igandea	astelehena
21	22	23	24
00:00 03:30	00:00 03:30	00:00 03:30	00:00 01:30
0,60€ 0,20€ -4 urte -65 urte	0,60€ 0,20€ -4 urte -65 urte	0,60€ 0,20€ -4 urte -65 urte	0,60€ 0,20€ -4 urte -65 urte



ANDOAINGO UDALA

17:00 Galdera jolasa: 7-11 eta 12-14 bitartekoentzat. Euriarekin Makaldegian.

17:00-19:30 Haur parkea Goikoplazan: jokoak, puzgarriak, ludoteka... Euriarekin Ondarretan.

18:00 Haur danborrada Zumea plazatik Goikoplazara.

19:00 Dantza saioa Goikoplazan: Klaap, La Salle Berrozpe eta Zumbalokura. Euriarekin, La Salle-Berrozpeko estalpean.

22:30 Ragnaroc, Kull d'Sac taldearen kalejira piroteknikoa. Ibilbidea: Juanita Alkainetik Goikoplazara.

AITA LARRAMENDI IKASTOLA

Txistoki pasealekua, z/g
20140 - Andoain
Tel.: 943 593 525
andoain@ikastola.eus
www.andoainikastola.eus

JAIETAN ERE EGIN EUSKARAZ

San Joan jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Cambridgeko azterketen prestakuntzarako zentro homologatua.

Prestakuntza trinkoa: Cambridgeko azterketak uztallean.

2019-2020 Ikasturterako matrikulazioa zabalik

Tolkien, ingelesaren sinonimo Andoainen
Ondarreta 7, behea. ANDOAIN. 943 300 839
www.andoainenglish.com

IZKIRIOTA
ardoaren mundua

II. ARDO DASTAKETA HERRIKOIA

Ekainak 22. 12:00
Goikoplaza. Andoain

695 714 616
info@izkiriota.com
www.izkiriota.com

Gora Sanjuanak!

Aterpe

Goiko Plaza, 7 ANDOAIN

Tel.: 943 117 986
672 725 978



Axeri dantzariak, buruzagia izendatzeko egin zuten bileretako batean. AIURRI

Aldaketa buruzagitzan

Aurtengo edizioan ez da Xato Irazu buruzagi lanetan arituko, Izaskun Beraza baizik. Bi protagonistek aldaketaren arrazoiak eskaini dizkiote Aiurri astekariari

Xabier Lasa ANDOAIN

Buruzagitza estreinatuko du Axeri Dantzak, aurtengo San Juan jaietan. Izaskun Berazak estrainekoz hartuko du ardura hori, Xatonia Irazuren lekukoa hartuz. Urduritasun puntua kendu ezinik dagoela aitortu arren, esanahi handiko zeregin horri ilusioz beterik helduko diola adierazi du Berazak.

Lizar Makil dantza taldeak Axeri Dantza Adunan eta Andoainen 1978an berreskuratu zuenetik, Juantxo Arregi izan

zen hainbat urtetan buruzagia. 2009an agur esan zion buruzagi edo kapitain izateari, eta Katto Amilibia zenak hartu zuen lekukoa. Hiru ediziotan (2010-2012) hartu zuen parte Amilibiak; 2012ko uztailan zorigaitzeko mendi istripu batean zendu zen.

Xato Irazu etorri zen hurrena. "Katto izendatu zen garaitik guztiok ere argi geneukan sinbologia handiko kargu hori inork ezin zezakeela hartu betiko. Nik bete dut sei urteko aroa (2013-2018), eta bazen garaia ardura

MUJIKA TOLARETXIPI ANAIK
MAPFRE




**Eskola kalea, 8
 ANDOAIN
 943 592 307
 Faxa: 943 300 161
 imujika@mapfre.com**

Jai zorientsuak opa dizkizuegu


Zabala
 Ordukari Bitxitegia
 Ondo pasa Sanjuanetan!
 Kale Nagusia, 14
 ☎ 943 593 745
 Andoain
 Gudari enparantza, 5
 ☎ 943 332 341
 Hernani

Zatoz jaietan!

AKER BELTZ
T A B E R N A



**Nafarroa plaza, 1B
 ANDOAIN. 943 300 846**





Irzu, Beraza eta Arregi, Axeri Dantzako lau buruzagietatik hiru. AIURRI

hori beste dantzari bati eskainitzeko”.

Mendeetan atzera, sustrai sendoko tradizioa izan da Axeri Dantza. Gipuzkoako hainbat lekutan, eta Beterri aldean ere, Aita Larremendik gogorarazi zigun bezala. Ditzira handiko erritualtasuna, sinbologia eta errepresentazioa daukan dantza da, euskal dantzen solemnitatea eta dibertsiorako joera bikain uztartzen dituen.

Irazuk dantza horren buruzagi edo kapitain izateko arduraz izan du: “Erantzukizuna eta seriotasuna eskatzen duen postua da, eta horrexegatik, pertsonalki erne eta tentuz ibiltzea egokitu izan zait. Bereziki lehenengo hiru urteetan. Beti behar den tentsio puntua galdu ez arren, lasaiagoak eta gozatzeko modukoak izan dira azken hiruak”.

Adostutako izendapena

Axeri Dantzaren talde eragileak eztabaida prozesua ireki zuen 2018an, dantzari guztiak batera, 2019tik aurrera buruzagi berria erabakitzeko. “Iritzi trukateta eman zen, eta buruzagia zenbait irizpide edo ezaugarrien arabera izendatu behar zela adostu genuen; hala nola, dantzaren zehar egokitzen diren dantza guztiak jakitea (zortzikoa, desafioa...), eskarmentua, dantzako kide guztiekiko enpatia, dantzariak batzeko gaitasuna, inplikazioa, erreferentzialtasuna, dinamikoa, irekia bezain zorrotza izatea...”

Zenbait dantzari izendatu ziren hautatze prozesuan zehar, eta azkenik denen artean Izaskun Beraza hautatu zuten. Beraza konstziente da Goikoplazan, San Juan egunean eta eguerdiko 12:00etan, berarengana bi-

dera litezkeela ikusleen begiratu gehienak; batetik, buruzagi berria aurkeztuko delako. Eta bestetik, aurreneko aldiz emakumezkoa izango delako. “Erantzukizun handia dakar berarekin karguak; errespetua bezainbat poza eta harrotasuna eragiten dit, eta arduraz jokatzeko saiatuko naiz biziki”. Berazak aitortu du ekainaren hasieran lehenengo entsegetan murgildu ahala urduritasun pittin bat sentitzen hasi zela. “Baina Goikoplazan gerriko beltza eskuan hartu eta oinak dantzari jarri bezain pronto, seguru naiz uxatuko zaizkidala gorputzeko dardarizo guztiak. Azken batean, atzean talde eragilearen babesa eta lana sentitzen ditut, eta dantzariak ere konpromiso handia erakusten ari dira. Erabateko konfiantza transmititzen didate, guztiek ere”.

Prozesu naturala

Buruzagi berria eduki arren, aspaldian heldutako bideari eutsiko dio Axeri Dantzaren talde eragileak. Berazaren iritziz, “Lizar Makil dantza taldeetik zetozen kideek lan eskerga burutu zuten ia mende laurdenez Axeri Dantza berreskuratu eta mantenduz. 2000. urtean talde eragileak hartu zien lekukoa. Prozesu natural batean kokatu behar da geroztik dantzak bizi izan izan dituen aldaketak, garai berrietara egokitzeko ahalginean. Axeri Dantza dantza parekidea izatea erabaki zen 2000. urtean, eta ondorengo urteetan, besteak beste, Soka dantza ere parekidetu, laburtu eta Axeri dantzan txertatu da”.

Garai berrietara moldatzeko prozesu horren azken urrats gisa har liteke buruzagia emakumea izatea.



Entseguak Ondarreta ikastetxean

San Juan egunean Goikoplazan egingo den Axeri Dantzarako prestaketa burutzen ari dira Ondarretako ikastetxeko jolastokian ekainean zehar. Azpimarratzekoa da partaidetza zabala, eta batik bat, lehen aldiz dantzara hurbildu den gazte jendea.

Kultur transmisioa

Aldaketak aldaketa, Berazak zein Irazuk Axeri Dantza betetzen ari den zeregina azpimarratu dute: “Elementu bikaina da kultur transmisioari begira. Urtez urte, gazte ugari erakartzen duen dantza da. Bestelakoan plazan dantza egiten ez duten hainbat gazte eta heldu Andoaingo tradizioan sustraizten den usadio batean

inplikatzeko lortzen da. Sanjuanak eta euskal tradizioak modu aktibo eta dibertigarri batean bizitzeko eskaintzen die Axeri Dantzak, eta balio hori eskertzen dute parte-hartzaileek. Gainera, azken urtetan gazte jendea talde eragilerak batzen ari da, eta pozik adieraz dezakegu Axeri Dantzak urte mordoska baterako etorkizuna ziurtatuta daukala”.

Gora Sanjuanaki
Gora Sanpedroaki

Xixori
BELARDENDAK ANDOAINEN

Txitibar, 4
☎ 943 245 023

Eskola kalea, 3
☎ 943 590 199

2019
50
urte

ondarreta ikastetxea

ONDO PASA FESTETAN!

LEIZARAN
INSTITUTUA

andoaINDARRA
euskaraz

Txupinazoa, hilaren 27an

Indarkeria matxistaren inguruko proiektua lantzen ari diren herriko Erratzuz taldeko gazteek jaurtiko dute txupinazoa aurtengo jaietan

Olatz Lasa ASTEASU

Nola jaso duzue txupinazoa jaurtitzearen berria?

Peru Larrañaga: Festetako bigarren batean, gure taldeko kide batek galdetu zuen ea aurreko nork jaurtiko duen txupinazoa, eta guk jaurtiko genuela erantzun zioten. Hasieran txantxa gisa hartu genuen, ez baigenuen horrelakorik espero.

Oneka Herrero: Hasieran lotsa sentitu genuen, gutako nork jaurtiko duen txupinazoa pentsatzen jarrita.

Indarkeria matxistaren inguruko proiektua ari zarete lantzen. Zertan datza?

O. H.: Arremanitz kooperatibako bi kide, Asier eta Izaro, etorri ziren abenduan jardunaldia gidatzera. Hilabetero jardunaldi bat antolatu ohi dugu, gure beha-

rreratik abiatuz matxismoari lotutako ideia ezberdinak lantzeko. Tarteka mutilak eta neskak talde banatan banatu gara; ondoren, elkartu eta mahai gainean jarri ditugu ateratako ondorioak.

Zein emaitza atera dituzue jardunaldi horietatik?

P. L.: Asteasun lehen aldiz protokolo bat sortzeko bidean gaudela, jaietan indarkeria matxisten harira sortzen den segurtasun ezari aurre egiteko helburuz. Protokoloa hitz potolo gisa ikusten da eta ez-jakintasun horrek askotan atzera egiten du, baina nik uste herriak erantzun ona emango duela.

Eta zein ideia bildu dituzue protokolo horretan?

P. L.: Txosnan eroso sentitzen garenez, txosna gune seguru

gisa izendatu dugu. Edozein tabernatan erasoren bat gertatzen dela ikusiz gero, erasotuari laguntza eskainiko zaio eta txosna izango da babesgunea.

O. H.: Erratzuz taldeko kideak gara protokoloaren arduradunak. Gutakoren bat txosnan ez bada ere, gure kontaktua badute eta deituko digute. Asteasuko Udalak une oro eskaini digu laguntza, eta herriko emakume taldearekin ere elkarlanean ari gara.

Herriarrek badute protokoloaren berri?

P. L.: Protokoloaz gain, etxeetara bidaltzeko eskuorria prestatu dugu. Pentsatu dugu eskuorria tabernatan ere eskuragarri jartzea, eta tabernariekin hitz egin dugu erasoren bat gertatuko balitz ea prest egongo liratekeen



Peru Larrañaga eta Oneka Herrero Erratzuz taldeko kideak. AIURRI

argiak pizteko eta kaleratu behar dena kaleratzeko.

Txupinazoa nola joango den aurreraterik ba al duzue?

O. H.: Txupinazo egunean "Ni ere prest" deitu ditugun txapak banatuko ditugu. Txapa hori

hartzen dutenek, erasoen aurrean laguntza eskaintzeko ardura adierazten dute.

P. L.: Erasotua izan denak ikusten badu inguruan 50 pertsona daudela txapa soinean jantzita, babeska emango dio.

"TXOSNAN EROSO SENTITZEN GARENEZ, GUNE SEGURU IZENDATU DUGU"

PERU LARRAÑAGA

"TXUPINAZO EGUNEAN 'NI ERE PREST' DEITU DITUGUN TXAPAK BANATUKO DITUGU"

ONEKA HERRERO

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

Iturri-Ondo
Jatetxea
Jai zoriontsuak igaro
Tel.: 943 691 331
ASTEASU

asmek

Ondo pasa jaietan!

Industrialdea, B Gunea, 38
20159 Asteasu

Tel.: 943 692 230. Faxe: 943 690 899
asmek@asmek.es www.asmek.es

ERAIKUNTZAK - ASFALTOAK

BIXENTE OTEGI LIZASO, S.L.

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Elizmendi, 44

20159 Asteasu

Tel.: 943 690 178

bixenteotegi@bixenteotegi.com

Hamaiketakoa Aitzondon

Jubilatuentzako meza osteko hamaiketakoa prestatzen du urtero Aitzondo elkarteak. Aurtengoan ere ez dute hutsik egingo. Elkarteak sortu zela 60 urte beteko dira aurtengoan.

Olatz Lasa ASTEASU

Aurtengo hartu du Aitzondo elkarteak zuzendaritza Bittor Lasa billabonarrak, eta San Pedro jaietan elkarteak duen lekuaz eta garrantziaz hitz egin du.

Jubilatuena eguneko hamaiketakoa eta bazkaria elkartean ospatzen dira urtero, sarrera ikurrin handi batez apaintuta izaten delarik. Hamaiketako ederra egiten dute, hala nola salda, haragi egosia... Bittor Lasak erantsi duenez, "jubilatuz zaharrenari oroigarria oparitzen zaio. Zaharrenari eman zaionaren kasuan, bigarren zaharrenari ematen zaio. Eta bazkalostea trikitilariak eta bertsolariak alaitzen dute". 1959. urtean sortu zen Aitzondo elkarteak. Egun, 146 bazkide ditu eta horietatik 11 dira emakumezkoak. 2004.



Bittor Lasa Asteasuko Aitzondo elkartearen lehendakaria. AIURRI

urte arte bazkide guztiak gizonak ziren, eta geroztik emakumeek bazkide egiteko aukera dute. Aitzondo elkarteak familian edota lagunartean elkartzeko elkarteak leku ederra dela gehitu du Lasak.

**"ELKARTEAK
146 BAZKIDE DITU,
HORIEKATIK
11 DIRA
EMAKUMEZKOAK"**



Gaueko autobusa Villabona, Zizurkil, Irura, Anoeta eta Tolosara joango da. AIURRI

Larunbatean gaueko autobus zerbitzua egongo da Asteasun

Parrandatik bueltan Zizurkil, Villabona, Irura, Anoeta eta Tolosa herrietara joango da autobusa

Erredakzioa ASTEASU

Ekainaren 29tik 30erako gauean, Asteasutik inguruko herrietara itzultzeko Lurraldebus autobus zerbitzua egongo da.

2:30ean abiatuko da autobusa Asteasutik inguruko herrietara, hala nola Zizurkilera, Villabo-

nara, Irurara, Anoetara eta Tolosara. Ordubetero erdian egongo da autobusa hartzeko aukera 7:30ak arte.

Helburua herriko jaietara jendea erakartzea eta parrandatik bueltan etxerako bidean seguru sentitzea da.

**TRANSPORTES
IRURZUN**

**GORA SANJUANAK!
GORA SANPEDROAK!**

Tel: 943 694 220
638 669 623

607 464 033

trafico@ttesirurzun.com

gozotegia

arruti

Gora Sanpedroak!

Zumea 18, 943 593 777
ANDOAIN
arrutigozotegia@hotmail.com

Lur

Fisioterapia - Pilates zentroa
Ixiar Igerategi Lizarribar

Gora Sanpedroak!

Denak pol. zb. 207. Andoain
Tel.: 943 592 851 - 605 763 940

*Ondo pasa jaietan,
ingurua zainduz,
bizilagunak
errespetatuz*

*Zatoz
Asteasuko jaietara*

Asteasuko Udala

Meliora taldea indarrean

Aiztondo bailarako lau musikari gaztek sortutako rock taldea da. Iñaki Mujika eta Ivan Ropero taldeko bi kide dira eta. Sanpedrotan Gozategi taldearekin batera arituko dira

Amaia Senperena ASTEASU

Nola erabaki zenuten taldea sortzea?

Ivan Ropero: Hasiera batean beste talde batean nengibilen baina hura utzi eta Iñaki, Aitor eta

Markelekin beste talde bat sortzea erabaki nuen.

Iñaki Mujika: Instagrametik ezagutu nituen, eta uda amaieratik hona daramagu 'cover'

delakoak egiten eta gure abesti propioak sortzen. Oraingoz gehienbat besteen musika egiten dugu baina saiatzen gara gure abestiei ere tokia egiten.



Markel Galarraga, Ivan Ropero, Iñaki Mujika eta Aitor Amonarriz Meliora taldeko kideak. AIURRI

Zein musika estilo egiten duzue?

Iñaki: Rock eta metal musika, eta gure kantu sortaren artean baladaren bat ere badugu. Bakoitzak gure gustu musikalak ditugu eta hori ere lagungarria da errepertorioa kantu ezberdinekin osatzeko garaian.

Nondik dator taldearen izena?

Ivan: Latineraz, beti hobetu nahia da bere esanahia. Izena Gost taldearen diskotik hartu genuen.

Zenbat denbora daramazue?

Iñaki: Orain arte bi kontzertu eman ditugu. Asteasun joko dugu jaietan, uztailaren erdialdean Zizurkilgo Atxulondon eta baita Zizurkilgo jaietan ere.

Gozategirekin batera jotzeak esanahi berezia al du zuentzat?

Ivan: Gure lehen aldia izango da herriko festa batzuetan, eszenatoki batean eta benetako soinu

ekipo batekin. Eta, gainera, Gozategirekin. Ikaragarria da.

Iñaki: Oso kontzertu gutxi egin ditugu, eta horren ezaguna den talde baten ondoren jotzeak asko motibatzen gaitu. Gainera, Gozategi ikustera jende asko gerturatuko da. Ikusleengana iristarazteko modu egokia da.

Taldea sortuta, zeintzuk dira zuen hurrengo urratsak?

Ivan: Abestiak forma hartzen joaten direnean ikusiko dugu. Gure kasa ari gara gure make-tak grabatzen, eta Spotify-n ere entzungai gaude.

Jaietako kontzertuaren atarian, zer esango zenieke ingurukoei?

Iñaki: Ondo pasatzera etor daitezela, gure abestiez gain, estilo eta hamarkada ezberdinetako kanta ezagunak joko ditugulako. Eta, gainera, hiru hizkuntzatan: euskaraz, gaztelaraz eta ingelesez.

Ivan: Kantu gehienak rock kutsukoak badira ere, punk, hard rock, metal eta beste hainbat estilo ere jorratzen ditugu.

Zerbait ezberdina entzun nahi duenak, anima dadila. Guztion artean, seguru nago, ondo pasako dugu.

"OSO KONTZERTU GUTXI EGIN DITUGU, ETA GOZATEGIREKIN BATERA JOTZEA MOTIBAGARRIA DA"



Gora Sanpedroak!
Ondo pasa jaietan!

ADOS MUNTAIAK, S.L.
Asteasuko Industrialdea
A gunea-15, 20159 Asteasu
Tel.: 943 694 384
Faxa: 943 694 375
info@adosmuntaiak.com
www.adosmuntaiak.com



Ondo pasa festetan!
TRANSPORTES
lakunza

Eguneroko zerbitzua Bizkaira,
Iruñeara eta Gasteizera

609 434 910 - 609 401 884. Tel.: 943 693 212 - Faxa: 943 694 924
www.transporteslakunza.com - info@transporteslakunza.com
A Industriegunea - 16. pabillola, 20159 ASTEASU
52 P.K., 20150 AMASA-VILLABONA



San Juan suaren irudiak:
aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Trikitixa doinuen alaitasuna

Juan Tapia Asteasuko trikitilari eta pandero joleen irakaslea da. Urtero, hutsik egin gabe, San Pedro jaietan parte hartze handia izan ohi dute

Amaia Senperena ASTEASU

Eskarmentu handiko trikitixa eta pandero irakasle zaitugu...

Hamabost bat urte daramatzat. Proiektua proposatu zidatenean, etxean trikitixa jotzen nuen, eta geroztik nire afizioa ofizio bilakatzea lortu dut.

Erraza al da ogibide bilakatzea?

Ez, oso zaila dago. Garai batean oso desberdina zen. Ez da erraza. Modu ezberdinean bizi daiteke musika. Afizioa edo lanbidea izan daiteke, baina musika ogibide bilakatzea oso zaila da. **Zer ikusiko dugu aurtengo jaietako emanaldian?**

Aurten, formatua zertxobait aldatu dugu. Lehen talde handia ateratzen ginen, eta aurten gaztetxoak talde txikiagotan aterako dira. Badakit eurentzat zailagoa izan daitekeela, baina

irakaslerik gabe jendaurrean jotzea posible dutela ikustea ere garrantzitsua da.

Gogoko al duzue herrian jai giroa sortzea?

Bai, herriak behar du. Eta ikasleak berak ere ikasteko plazara ateratzea beharrezkoa du. Ikasturtean zehar ikasitako hori jendaurrean plazaratzea eta herriko ekintzetan parte hartzea garrantzitsua da.

Asteasu bezalako herri txikirako trikitilari eta panderojole askotxo zaudete.

Halaxe da, bai. Horrelako biztanle kopuruarekin horrenbeste trikitilari eta panderojole izatea ez da oso ohikoa. Asteasun beti izan da musika estilo honetik grina.

Zer esaten diezu ikasleei oholtza gainera igo aurretik?

Urduritasun gehiago sortzen du herrian bertan jotzeak, kanpoan jotzeak baino. Herrian ezagunak, lagunak eta familia baitaude. Eta ez da erraza izaten. Oso ezberdina da, gainera, kalejiran edo oholtza gainean aritzea. Segurtasunez igotzeko aholkua ematen diet.

Kalejiraren eta emanaldiaren alde, zer esango zenuke?

Oso polita da, 7 urtetik hasi eta 70 urte bitarteko trikitilari eta panderojoleak batera ikusteko aukera dago. Denen artean oso giro polita sortzen da. Guztion artean ere ondo pasatzera anima daitezela.

Igandeari begira gauza bera. Herri kirol lehiaren ostean giro polita egon ohi da, eta ikuslegia gugana gerturatzerantz animatuko nituzke.



Juan Tapia, Asteasuko trikitixa irakaslea. AIURRI



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**

AMC
MECANOCAUCHO

Festa zoriontsuak opa dizkizuegu!

Industrialdea Parc. 35 A
E-20.159 ASTEASU - Gipuzkoa
Tel.: 943 696 102 - Faxes: 943 696 219



PIEZEN MEKANIZAKETA ETA MUNTAKETA

TXORTU Lantegiak, S. Koop.



Tel.: 943 691 778 - Faxes: 943 693 387

Asteasuko industrialdea,
A gunea, 9. zbk. 20159 ASTEASU

Gora Sanpedroak!

SANPEDROAK ASTEASUN'19



EKAINAK 23

IGANDEA

21:00 San Juan egunaren bezperako sua eta dantza.

EKAINAK 26

ASTEAZKENA

18:30 Frontenis txapelketa, finalak.

22:05 Mus eta txintxon txapelketak frontoian. Bikotekide batek Asteasun erroldatuta egon behar du.
21:30 Izen-ematea.
22:00 Zozketa.
22:05 Txapelketen hasiera.

EKAINAK 27

OSTEGUNA

11:00 Haur txupinazoa, krosa eta marrazketa lehiaketa.

12:00-14:00 / 15:00-17:00 Haur parkea frontoian.

14:00 Haur bazkaria.

17:30 Txan magoa plazan.

18:00 Gizonezkoen Pala Txapelketako finala.

19:30 Txupinazoa.

22:30 Bertso-saioa plazan.

Gero Kalejira tabernaz taberna.

EKAINAK 28

OSTIRALA KUADRILLEN EGUNA

11:30 Asteasuko pilota eskolako txapelketako finalak.

12:00 Triki poteoa. Ondoren, Ikurrinaren ekitaldia.

14:30 Kuadrillen arteko bazkaria.

16:30 Zezen txikiak eta poniak.

18:30 Sakatu elektrotxaranga.

22:30 Zezen suzkoa. Jarraian, Euskorleas Dixie Band, musika kalean.

00:30 Josu Rodriguez DJa plazan.

EKAINAK 29

LARUNBATA SAN PEDRO EGUNA

10:00 Txistularien diana.

11:00 Meza nagusia. Jarraian, soka-dantza, hamaiketakoa eta Asteasuko pilota eskolako txapelketako finalak Elizmendin.

18:00 Kalejira herriko musikariekin, buruhandiekin eta erraldoiekin.

19:30 Bonberenea txaranga.

21:00 Herri-afaria.

00:00 Gozategi eta Meliora.

EKAINAK 30

IGANDEA

11:30 Meza eta hamaiketakoa.

11:00-11:30 Patata tortilla txapelketa.

12:30 Sagardo dastaketa.

13:00 Aizkolariak eta harri-jasotzaileak.

14:30 Jubilatuen bazkaria. Jarraian, bertsolariak.

18:00 Herri-kirolak. Jarraian, trikitixa eta pandero eskolaren emanaldia.

21:00 Sorginaren jaitsiera.



San Pedro eguneko ospakizuna, mezaren ostean.



Koadrilen eguna ekainaren 28an izango da, ostiralarekin.



Euskorleas Dixie Band taldeak Asteasuko kaleak alaituko ditu.



1982. urtetik

skinter

ONTZIRATZEAK SKINEAN,
BLISTER ETA HUTSEAN

Asteasuko industrialdea, 46-47
20159 ASTEASU /943 690 199
www.skintersl.com

Ondo pasa
Asteasuko jaietan





Ormazabal
GARRAIOAK

Iker Ormazabal S.L.

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Tel. 680 365 181
Zilar kalea, 2 - ASTEASU